



AGINDUA, 2019ko ekainaren 6koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez 2019ko ekainaren 4an argitaratutako behin-behineko zerrendak baliogabetzen diren eta 2019-2020 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan eta itunpeko pribatuetan Batxilergoko ikasleak onartzeko prozesuaren egutegia aldatzen den.

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko otsailaren 25eko Aginduaren 2. artikuluan xedatutakoa betez, joan den 2019ko ekainaren 4an Batxilergoko ikastetxe bakoitzean onartuta eta baztertutako ikasleen behin-behineko zerrendak argitaratu ziren.

Eskaeren baremazioan arazo bat egon dela antzeman ondoren, beharrezkoa da argitaratutako behin-behineko zerrendak baliogabetzea eta prozesua bukatzeko egutegi berria ezartzea.

Hori dela eta, honako hau,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Joan den 2019ko ekainaren 4an argitaratutako Batxilergoko ikastetxe publikoetan eta itunpeko pribatuetan onartuta eta baztertutako ikasleen behin-behineko zerrenda guztiak baliogabetzea.

Bigarrena: Prozesua bukatzeko egutegia honako hau izango da:

- a) Behin-behineko zerrenda berriak argitaratzea: ekainaren 6a.
- b) Behin-behineko zerrendei erreklamazioak egiteko: ekainaren 13 arte, egun hori barne.
- c) Eskabideari uko egiteko: ekainaren 13 arte, egun hori barne.
- d) Behin betiko zerrendak argitaratzeko: ekainaren 20a.
- e) Matrikula egiteko aldi arrunta: ekainaren 21etik uztailaren 5era, biak barne.
- f) Behin betiko zerrendei gora jotzeko errekurtsioak jartzeko epea: uztailaren 22a arte, egun hori barne.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 6a



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Cristina Uriarte Toledo  
HEZKUNTZA SAILBURUA